

ERMUA-EITZAGA: LEKU-IZENAK
LIBURUKIAREN AURKEZPENA

ERMUA-EITZAGA: LEKU-IZENAK

Onomasticon Vasconiae, 22

Ermua, 2002-V-23

Bilbo, 2002-V-24

Carlos Totorika,

Ermuko alkatea

Arratsaldeon danori eta Ongi etorri **Ermua-Eitzagako: Leku-izenak** liburuaren aurkezpen honetara; baina harrera espeziala egin nahi deusuet eta eskerrak emon hemen egoteagaitik:

FERNANDO ARANBERRI, lanaren egileari, JOSE LUIS LIZUNDIA, euskaltzain urgazle eta Euskaltzaindiko gerenteari, ANDRES IÑIGO, euskaltzain oso eta Onomastika batzordeburuari, MARI ASUN ARDANZA kontzejalari eta Ermuko Udaleko Euskera batzordeari.

Zuori danori eskerrak emoten deusuedaz egin dozuen behar guztiagaitik.

Baina ez neukez ahaztu nahi inundik be gure historia hurbila ondino bizirik daukien ermuarrak; liburu hau egitea posible izan bada eurei esker izan da-eta, euren aurrekoei entzundakoak kontatu eta transmititu deuskuezalako.

Badakizue Ermuaren kasuan jendearen memoria bizia oso inportantea dala, hemen geratzen jakuzan dokumentu idatziak eta balio historikodun edizio eta lekuak gitxi diralako.

1794ko Konbenzino Gerran gure historiaren zati handi bat galdu egin zan, frantsesek herrian egozan 86 etxetik 82 erre ebezanean. Gero, Gerra Zibilean udal artxiboak galdu egin ziran barrero be, eta XX. mendeko 60 urteetan, herritar-kopurua eta industria ikaragarri hazi ziranean, balio historikodun edizioak ez ziran bat be erresetatu.

Horregaitik, danagaitik, da hain inportantea gaur aurkezten dogun liburu hau.


Esuketan daukazuen liburua gauza txikien historia da, baina horrekin batera, gure aitita-amamen, euren kulturearen eta bizimoduaren historia be bada, eta azkenean, geure historia.

Badakigu iragan hurbila ikusteko bi modu dagozala: bata gure historia markatu dabene gertakari handiak kontuan hartzea eta bestea, eguneroko bizi-moduan —erlijioak, konstunbreak, familiak eta abarrek kondizionatuta— agertzen diran detaile txikiei begiratzea; horrek ez dabe aldaketa sozial handirik ekarri, baina bista-bistan lagatzen ditu gure herriaren sentimenduak eta gauzak egiteko modu ona.

Toponimiak, herriaren kulturea oinarri hartuta, leku-izen diferenteen jatorria eta esanahia aztertzen dau.

Oraingoan gainera, herriaren antxinako kulturea berreskuratu nahi dogu, zati handi bat euskerea dan hizkuntza aberats eta pluralaz adierazita dago-eta.

Betiondo, Ureta, Elorreta, Urko, Torreta, Arrako, Sinko, Txantxiko, Orozko, Motxu, Santuko, Komentukoa, Antonatxa eta beste izen asko gure herriaren egitura historiko eta sozialaren zati inportanteak dira.



Ermuarrok etorkizunari begira egon behar dogu eta soziedade zabal bat eraiki, denborearen aldaketea, kultur-aberastasuna, dibertsitatea, eta aurrera-pauso ekonomiko eta sozial guztiak onartuko dituana.

Halandabe, etorkizuna oparoa izateko derrigorrezkoa da bere oinarriak sendo eta ondo zainduta eukitzea, eta horretara dator hain zuzen be liburu hau. Gure iragana onartu egin behar dogu, eta harro egon gainera, gure herria bere sustraiak kontserbatzeko gauza izan dalako, eta horrela erakusten dau gainera gu danok gaur hemen alkatuta egoteak, ikuspegi diferenteetatik bada be, iraganagaitik interesa badaukagula agertzeko.

Orain M^a Asun Ardantzak, Kultura Kontzejalak, berba egingo deusku.

ERMUA-EITZAGA: LEKU-IZENAK

Ermua, 23-V-2002

*M.^a Asun Ardanza,
Concejal de Euskera y Cultura
del Ayuntamiento de Ermua*

Buenas tardes.

Como concejal responsable del área de euskera de este Ayuntamiento, quiero agradecer vuestra presencia en este acto, en el que se presenta el libro *Ermua-Eitzaga: leku-izenak*. El trabajo surge en la colaboración del Ayuntamiento de Ermua, Euskaltzaindia, Diputación Foral de Bizkaia y Euskal Birusa. Su autor, el filólogo Fernando Aranberri tiene otra publicación sobre *El euskera de Ermua-Eitzaga*.

Desde la formación del Ayuntamiento democrático en 1979, la recuperación de los nombres históricos de los lugares de nuestra villa, ha sido una preocupación constante de las sucesivas corporaciones, reflejándose principalmente en la recuperación de nombres de calles o barrios y la aparición de topónimos en entidades y centros públicos.

Ahora presentamos un trabajo ambicioso, que profundiza en el conocimiento de nuestra toponimia y nos ayuda a recuperar nuestra humilde pero entrañable memoria histórica.

Estoy convencida de que el libro que hoy presentamos se va a convertir en un instrumento útil para eruditos, así como provechoso y ameno para los ciudadanos en general que estén interesados en este fenómeno socio cultural que llamamos Ermua.

No quiero acabar, sin expresar un reconocimiento personal muy especial a José Luis Lizundia, con quien siempre da gusto hablar, que ha estado pendiente en todo momento de la marcha de los trabajos.

Seguidamente cedo gustosamente la palabra a Andrés Iñigo, Presidente de la Comisión de Onomástica de la Real Academia de la lengua Vasca / Euskaltzaindia.

ERMUA-EITZAGA: LEKU-IZENAK

Ermua, 2002-V-23

*M^a Asun Ardantza,
Euskera eta Kultura zinegotzia*

Arratsalde on guztioi:

Udaletxe honetako euskera alorreko zinegotzi eta arduradun bezala, *Ermua-Eitzaga: leku-izenak* liburua aurkezten den ekitaldi honetan zuen agerpena eskertu nahi dut. Lana, Ermua Hiriko Udalaren, Euskaltzaindiaren, Bizkaiako Foru Aldundiaren eta Euskal Birusaren laguntzarekin sortzen da. Autorea, Fernando Aranberri filologoa, *Ermua-Eitzagako euskarari buruzko* beste argitalpen baten sortzailea izan da.

1979.urtean Udal demokratikoa osatu zenetik, udalbatzen arduraren berezia izan da gure hiribilduko izenen berreskurapena, hau da, kale eta auzo izenen berreskurapena, izan dela azpimarratu beharrekoa dugu.

Orain, gure toponimoen ezagutzan sakotzen duen lan erakargarri bat aurkezten dugu. Gurea geurea den memoria historiko apal baina kutuna berreskuratzen lagunduko diguna.

Ziur naiz gaur aurkezten dugun liburua, materiaren jakintsuak direnentzat instrumentu oso erabilgarri bat izango dela eta Ermua deitzen dugun gizarte-kultura fenomeno honetan interesa duten herritarrentzat ere probetxugarria eta atsegina izango dela.

Ez dut bukatu nahi José Luis Lizundiari eskerrak eman gabe, lanak nola zihoazen ikuskatzen izan delako momentu oro eta berarekin hitz egitea beti ere atsegingarria delako.

Jarraian Andrés Iñigok, Euskaltzaindiko Onomastika batzordeburuak hitz egingo du.

ERMUA - EITZAGA: LEKU IZENAK
(*Onomasticon Vasconiae*, 22. liburukiaren aurkezpena)

Ermuko Udaletxea, 2002-05-23

*A. Iñigo,
Onomastika batzordeburua*

- Carlos Totorika, Ermuko alkate jauna,
- Maria Asun Ardanza Telleria alkateorde andrea,
- Fernando Aranberri liburuaren egilea,
- Jose Luis Lizundia, liburuaren sarrera egilea,
- Euskaltzaindiaren Onomastika batzordekideak.
- Jaun-andreak.

Arratsaldeon guztioi:

Dakizuen bezala, Euskaltzaindiaren eginbeharretako bat euskara lantzea, ikertzea eta arautzea da. Hori dela eta, Euskaltzaindiak baditu batzorde edo lantalde batzuk lanean gogor ari direnak esku artean dituzten zenbait proiektutan: Hiztegitintzan, Euskararen Herri Hizkeren Atlasean, Gramatikan, Literaturan eta abarretan. Horiekin batera, gure Akademiak badu beste batzorde bat, Onomastika batzordea, hizkuntzaren normalizazioaren bidean hain garrantzi handia duten izenak bildu, ikertu eta arautzeko.

Onomastikak bi atal ukitzen ditu bereziki: antroponimia (ponte izenak eta deiturak) eta toponimia (leku izenak). Batzorde hau aspaldiko urteotan etengabe ari da lanean. Lan horren lekuko ditugu, besteak beste, antroponimiaren alorrean orain dela hilabete batzuk argitara eman zuen *Euskal Izendegia / Ponte Izendegia* eta duela hiruzpalau urte kaleratutako *Euskal Deituren Izendegia*.

Toponimiari dagokionez, lantzen ari den gai garrantzitsuenetakoak honako hiru hauek dira:

- Toponimo nagusiak: herri eta auzo izenak. 1979an argitaratu zuen *Euskal Herriko Udalen Izendegia* eta, orduz geroztik, lurraldez lurralde berriro aztertzen ari da: Nafarroa, Euskal Autonomia Erkidegoa, Zuberoa eta Lapurdi eginak ditu eta orain Nafarroa Beherea eta Trebiñukoarekin ari da. Euskal Herri osoko izendegi gaurkotua laster prest izatea espero du.

- Kale izendegiak: gero eta gehiago dira hiri eta herrietatik iristen ari zaizkion eskariak.
- Toponimia txikia: herri bakoitzeko leku, etxe, baserri, kale,... izenak. Altxor izugarria dago onomastikan nahiz hiztegian.

Gaur aurkezten dugun liburua toponimia txikiaren lanen adibidea dugu. Alor honi dagokionez, Onomastika batzordeak lan prozedura eta izertak arautzeko irizpideak ezarri ditu eta Euskal Herriko erakundeetatik (udaletatik gehienbat) hartzen dituen lan proposamenen koordinazio akademikoa egiten du. Gisa honetako lanak argitara eman ahal izateko bilduma bat sortu zuen, *Onomasticon Vasconiae*. Ermua-Eitzagakoa da bildumaren 22. alea.

Toponimia ikertzea eta arautzea ez da gauza erraza, Fernando Aranberrik bere lana egiterakoan egiaztatu izanen duen bezala:

- Alde batetik, euskara oraintsu arte hizkuntza ofiziala izan ez denez gero, artxibo guztietan izenak erdal grafian idatziak aurkitzen dira eta askotan nolana idatziak.
- Bestetik, ahozko transmisioan izen franko nahiko desitxuratuak aurkitzen dira. Dударik ez dago Fernandok elkarriketatu dituen 75 informatzaile horiek izen bera modu batera eta bestera eman izanen diotela.
- Agirietan aurkitutakoak eta ahoz bildutakoak lotzeko orduan eta, bereziki, identifikatu ondoren forma arautua erabakitzerakoan, zalantza eta arazo franko sortu izanen zaizkio egileari.

Zailtasun horiek gainditu ondoren, ermuarren pozerako lana burutua dago. Zorionak Fernando Aranberri egileari eta beronen bultzatzaile izan den Euskal Birusa Euskara elkarteari. Eskerrik asko Bizkaiko Diputazioari eta, bereziki, Ermuko Udalari, lan hau egin eta argitara emateko jarri dituzten baliabideengatik.

Ermuarren pozerako esan dugu, baina Euskaltzaindiaren pozerako ere bada, liburu hau gure bildumaren 22. alea izateaz gain, bilduma honetan Bizkaiko toponimiaz argitaratu den lehenengoa baita. Zorionak, bada, lehenbizikoak izan zaretenei. Bizkaiko beste herri askok zuek hasitako bide hau segituko dutela espero dugu.

**ERMUA-EITZAGA:
LEKU-IZENAK
LIBURUAREN AURKEZPENA**

Ermuko Udaletxea, 2002-V-23

*Jose Luis Lizundia Askondo,
Euskaltzaindiko idazkariorde-kudeatzaile
eta Onomastika batzordekidea*

Karlos Totorika, Ermua uriko alkate jauna; Mari Asun Ardantza, zinegotzi andre adiskidea; Andres Iñigo, Onomastika batzordeburu euskaltzaina; Fernando Aranberri, egilea; Onomastika batzordekideok; Ermuko Udal talde desberdinetako zinegotziok; jaun-andreok. Arratsaldeon.

Hunkigarria da niretzat, gaur egun, hemen, Ermuko Udaletxean, Fernando Aranberriren, *Ermua-Eitzaga: leku-izenak* aurkeztea. Erakunde honen Onomasticon Vasconiaren 22. azken liburukia, hain zuzen.

Debarroko ibarrean geografikoki kokaturik badago ere, Ermua Durangoko merindadean barruko lau urietariko bat da Tabira, Otxandio eta Elorriorekin batera. Gipuzkoako probintziatik Ekialdetik sartukeran duzu uri hau. Ermuak ez du galdu bere euskaltasuna, besterik badirudi ere. Etorkinak ez dira izan galziarrak edo beste Estatuko herrialde askotakoak bakarrik, baita ere euskal herrialdeetakoek ere, baina bere-berea duen Ermuko uriko euskara berezia gorde du, Durangoko tabirarrek eta Elorriok bezalaxe, alboko nekazal elizateetatik berezia eta oso aberatsa.

Ermurekin duela 40 urte baino gehiagotik ditut harremanak, ermuar euskaltzale askorekin, hain zuzen. Era askotakoak, iritzi desberdinetakoak, baina euskaldunak erabat. Ia lehen uneko Gerediaga elkarteko Agustin Aranberriarekin hasi eta Lorentzo Iturriagagoitia ordezkariarekin (hemen dugu aldameanean, orain EAJko taldeburu bezala), baita ere Mallabiko ordezkari zen Justo Arriaga, orain Ermuan bizi denarekin, Olaizotarrekin, Guriditarrekin, Ardantzatarrekin (Mari Asun hemen dugu zinegotzi legez), Arindarrekin, Atxatarrekin, Berrizbeitiatarrekin, Amillategitarrekin eta beste askorekin. Ermuko Santiago-Santa Ana jaiak ere ez dira niretzat arrotzak, alderantziz baikik. Oroipen onak ditut. Bidenabar, zer portaera ona izan zuen nirekin Saez de Cabezón bertako farmazilari izan zenak. Urte askotan bertoko parroko izan

zen D. Teodoro Zuazua ere adiskide nuen (G. B.), auzokide gainera, ni Trañaxenagusikoa, bera Trañabarren baserrikoa, oso hurbilekoak gara eta etxe-arteke harreman ugariarekin, senitarteko ez bagara ere. Norbaitek, noizbaiten besterik idatzi badu ere, zin dagit nik behinik behin ermuarrek, gehienetan, euskaraz hitz egin dudala, beraiek ermuarrez eta nik abadiñarrez.

Ermuak badu euskararen batasunarekin ere zerikusi oso garrantzitsua eta ez nuke aipatu gabe utzi nahi, 1968ko ekainaren 28, 29 eta 30ean Gerediaga elkarteak antolaturiko «Euskal Idazleen Biltzarra». Garai hartan, elkarte horren idazkari nintzen, baina bereziki, Agustín Aranberria Gerediagaren Ermuko ordezkari zenaren laguntza oparoa izan genuen. Gerra osteko lehendabiziko euskal idazleen biltzar agerikoa Hego Euskal Herrian, hemen, uri honetan egin zen. Ideia Juan San Martín eibartar eta elkarteko bazkidearena izan zen, uste baitzuen, Arantzazuko Biltzarra baino lehenago, komenigarria zela idazleei, bilera batera deituaz, entzutea. Urte haietan ez zen erraza elkarte legez-tatu bat izatea eta Gerediagak, bestalde, ospea hartu berria zen bere ekintze-kin, bereziki, Euskal Liburu eta Disko Azokarekin. Elkarte horrek ezin zuen edonon biltzarrik antolatu, ez bazen Durangoko Merindade zaharraren 12 udalen eremu barnean, Ermua hautatu zuelarik.

Ermuak eta Durangaldeak, ez bakarrik, Gipuzkoa eta Bizkaiaren arteko euskaltzaleen artean zubi egin zuen, baita Ipar eta Ekialdearena ere, hasi Gabriel Aresti idazle bilbotarra, biltzar haren «izarra» esango nuke, eta amaiera hitzaldia egin zueneraino. Tartean, Imanol biak, Berriatua eta Laspiur, Aingereu Irigarai euskaltzain nafarra, Salbador Garmendia, Juan Antonio Letamendia hizlariak, ahanzi gabe exiliotik txostena igorri zuen Txillardegia. Lagun asko bildu ginen Ermuko Eskola Profesionalean.

Toponimiaren garrantzia aipatzearen Paco Llera Ramo Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle asturiarraren pasarte zenbait dakartzat hona, hain zuzen berak Academia de la Llingua Asturianaren *Lletres Asturianas*, 19, 1986an argitaratutako aldizkarian agertutako artikulu interesgarria baiteritzat. Pasarte labur hauek esango dizkizuet, liburutik irakurtzeko gomendatuz: «Identidad colectiva y territorialidad» da haren titulua: «Me voy a mover, por tanto, en el terreno de la valoración social que la colectividad da a la denominación del espacio físico sobre el que se asienta desde no sabe cuándo. Estamos ante un problema sociocultural, en el que cotidiana e inconscientemente se simbolizan y se reproducen la identidad colectiva de un pueblo y su territorialidad... Si hay algo que condensa tras de sí la toponimia tradicional, es un proceso sociocultural por el que cada grupo humano denomina y domina su espacio natural, en el marco del universo simbólico de sus representaciones colectivas... Con las aportaciones de la Ecología Humana en la mano, quiere esto decir que no podamos perder de vista la ubicación ecológica de cualquier componente cultural al que nos hayamos de referir».

Fernando Aranberriren liburuki honek badu, ene ustez, aberasgarri den beste zerbait. Askotan uste izan da euskara baserriarren hizkuntza dela eta

orobat, toponimia, baserrietxe, soro, landa, baso eta abarrena. Baina, ez horrenbeste hiri hizkuntza. Oraindik, Euskal Herriko hiri ertain eta txikien hizkeren arteko azterketa konparatu bat egiteke dagoen bezalaxe, hiri toponimien kidekatasuna ere sistematizatu gabe dago. Nire aldetik nahiko nuke, Ermuko toponimiaren ondoren, Elorrio, Durangoko Tabira eta Otxandioaren hiri toponimiaren ikerketak jarraitzea. Baita 12 elizateena ere, baina orain 4 hiriena interesatzen zait. Hor agertzen da **Pasealeku** hitza. Askotan, asmatu behar ez zen «ibiltokia» eta holako neologismoen bila joan beharrean, **pasealekua** egonda Gernikan, Bergaran, Otxandion; Barrenkaleak, Artekaleak, Goienkaleak eta Zeharkaleak dauden bezalaxe hasi Bilbo bertatik eta Gipuzkoaraino. Izen berriak asmatu dira, askotan beharizanik gabe, gure hiri berrietan, kasurik egiteke, aspaldiko hiri euskaldunetako hiri toponimiarako izen egokiak.

Oroitzen naiz nola Xabier Zubizarreta Arrasateko alkateak, hango toponimia ikerketaren XV. Onomasticon Vasconiae aurkeztu zenean, bertako Udaltxean eta, liburuan **Artekale** izena aurkitu «calle del Medio»rako, aitzak esan omen zion: «hori lehen Artekale zuan, orain hasi zarie Erdiko Kalea esaten». Interesgarria da Artekaleri buruzko zein aipamen egin duen Fernando Aranberrik. Ofizio kaleak ere hor ditugu hirietan aspalditik Errementari kalea, Tolosan; Dendari kalea, Bilbon eta abar. Noizbait egin beharko genuke hartu zenbait hiri eta azterketa konparatibo bat, adibidez, Arrasate, Bergara, Eibar, Debarroan; Durango, Markina, Gernika, Bizkaian, eskualde buru direnak bestalde; Bilbo bera ere, ahantzi gabe; Legutiano den txikiarekin, Billerleko euskara interesgarria baita; Azpeitian eta Tolosan, agian, Ordizian, beraz, merkatu hiriak, gipuzkerazko eremuan.

Amaitzeko, eskerrak, Ermuko Udalarari eta baita ere Bizkaiko Kultura Foru Sailari, Euskaltzaindiari eman dioten babesagatik. Eskerrak eta zorionak, Fernando Aranberri Odriozola, liburuaren egileari.

ERMUA-EITZAGA: LEKU-IZENAK

Ermua, 2002-V-23

Bilbao, 2002-V-24

Fernando Aranberri Odriozola

Ongi etorri danoi:

Hamen dakagun azterketa honek, *Ermua-Eitzaga: leku-izenak* daka izenburua. Urte askotako biharra izan da eta poz handixa hartzen dot zeuon aurrian, batez be ermuarron aurrian, aurkeztiaz.

Betidanik, toponimiazalia izan naz. Mendira fan nazenetan, mapa eskuan, nundik nora faten naizen ezagutzia gustatzen jata. Toponimiak, edo euskaraz esaten jakon leez *leku-izenak* zientzia-arlo askorekin daka hartu-emona: geografia, kartografia, hizkuntza, historia, artea eta, jakina, gure herriko izanakin, hau da, izan garenakin eta garenakin. Leku-izen guztixek badake historixia bat. Esaterako, *Betiondo, Santuko, Infreñu, Purgatorio, Zerukua, Torrekua, Lapurriturri...* Honek izenok eta euren historia txikiak hamen topauko dozue.

Azterketa hau egiteko, erabili izan ditxuten iturrixak bi izan dira nagusiki:


Bata idatzizkua, hau da artxibuetan begiratxu, dokumentu zaharrak arakatu, eta *liburutegietako sagutxo*en moruan astiro-astiro, lokaturik eta hautsak hartuta euazen izenok barriro esnarazi ditut. Artxiborik osatuenak begiratu ditxut: Bizkaiko Diputaziokua, Durangoko Jabego Erregistrua, Gernika, Derio, Ermua, Markina, Bergara,... eta beste hainbat lekutan ibilita nago. Ataratako informaziñuak oso garrantzi handixa izan dau, gaur egun erabiltzen ez diran izen ugari, edo soilik herriko nagusienek edo baserritzarrek erabiltzen dabezenak agertu diralako eta sarritan datu argixak urten dabelako izen bat edo beste proposatzeko. Adibide bat jartziarren *Baldespina kalia*, Baldespina marka bizi zanian *Barrenkale* zan eta gerra ostian *Barrenkale* izena galdu eta izen barrixa jarri jakon. Honek azterketa honek dokumentatutako argumentuak biltzen ditxu jatorrizko izenok berreskuratzeko.

Artxibuak arakatzen pasatu ditxuten horrek orduok, bestalde, beste zenbait ikerketa berrixendako atiak zabaldu leikez, liburuak toponimixiaz gain bestelako informazio ugari ekarten dau eta.

Bigarren iturburua, bizixena eta adierazkorrena, zalantza barik, herriko jentia izan da. 70 berriemaile baino gehiago elkarrizketatu ditzut eta eurei egindako grabaziñuen bidez, liburu honetan jasota daozen izen asko eta asko topatuko dozuez. Honek izenok bizirik diraute eta ez dira galdu bihar. Orain, herritxik jasotako fruitua barriro be herrixari bueltatu bihar jako.

Baserririk baserri, etxerik etxe eta mendirik mendi... berriemaileekin datuak fintzen eta kontrastatzen, ondorixuak ataratzen eta egindakua baieztatzen jardun dot. Tartian jente ugarik, zeharka eta batzuetan ohartu barik, beste batzuetan gogoz eta ilusioz beterik, parte hartu izan dau eta ahalegintxo guzti horiek elkartuz, ikerketa hau burutu dot.

Enbor beretik bi kume sortu dirala: anaia nagusixa dan liburua eta txiki-xa mapia.



Liburua daturik garrantzitsuenak ekarri ditxut. Idatzizkoa bada urtia, artxibua eta dokumentua nun topa leiken azaltzen dot (beti jatorrizko ortografia errespetatzen); ahozkuari, osterari, esaten dan modu berian jasotzen dot, azentua eta transkripzio fonetikorekin (esaterako ez da gauza bera *Ērmua* esatia edo *Ermúa* esatia, bata euskarazko ahoskera da eta bestia erdarazkoa. Beste adibide bat ipintziarren ez da gauza bera *Santúko* esatia (baserri izena) edota *Sántuko* (pertsona izena). Berezitasun guztiak jasotzen saiatu naiz: Hiztegixa, arau ortografiko normalizatuak... eta abar.

Hala be, eta ikerketa lan hau soilik adituentzako nahi ez nebanez, eta zue-
tariko asko partaide eta egile izan zarienez, hasiera-hasieratik hamen jasota-
kua, modu errazian eta edonork aitxeko moruan egin dot. Horregaitxik, *ohar-
rrak* izeneko atala sartu dot, izenan bilakaera eta interesgarri ikusi ditxuten
zertzelada guztiak biltzen ditxuen: ohar linguistikuak (zergaitxik proposatzen
doten *Kareobiaga* eta ez *Karabixa*), historikuak (zer da *Sallabente* eta zer ez,
nun hasten da eta nun bukatzen da), bibliografikuak (zein zan *Droget*, eta *Fe-
lix Izaqirre* edo *Kantabria*, edota *Txindurri* eta *Etxegiña*), arkitektonikuak (*Lo-
miño*, *Baldespina* jauregixa edo *Santiago* elizan inguruko aipamenak)..

Batzuetan beste idazle edo ikertzaileen aipamenak pe ekarri ditxut gogo-
ra; eta beste batzuetan, barriz, herriko euskararen jario zoragarrian, orain arte
ahoz besterik transmititu ez diran izenen historia txikixak. Hau dana borobil-
tzeko Ermuan dogun argazki bildumakin eta berriemaileek lagatako argazki-
xekin, leku-izenak argazkiz jantzi ditxut. 500 orrialde hauetan argazki zahar
ugari topatuko dozuez. Ermua zelakua zan ulertzen lagundoko doskuenak.

Bigarren kumia mapia izan da. Bertan *Ermua eta Zaldibarko auzua dan
Eitzagako leku-izenak* (*Sallabente* eta *Olaerreaga* barne) jaso ditxut. Ez jata
egokia iruditxu, *Espilla* baserrixa (Ermuko zaharrenetarikua) jaso eta *Espilla-
azpi*, esaterako Zaldibarren dagoelako, aipatu barik lagatzia; edota *Patrineko*
baserrixa, hau da *Sallabente-aurre* baserrixaren aipamena egin eta *Sallabente-
ko ermitxarena* ez. Hori muga hori kuadrilan eta elizaz be alde biak bat dira.
Baserrixak, mendixak, errekek, soluak, etxiak, kaliak... eta abar ikusiko do-
zuez mapan, argazkixak, aurkibidia.... be hor dozue.

Lana inprentan sartu eta irten orduko, leku batzuk desagertu dira, herri-
xa ikaragarri aldatzen ari da ta. Esaterako *Sakonako* etxiak edota azken-azken
obra berrixak hemen mapan ez dira agertzen. Baina, tira, beti egongo da al-
daketia.

Neuk, honekin aurkezpenonekin, lana amaitutzat emoten dot. Orain, le-
kukua zuek hartu biozue. Oparirik onena, niretako eta Ermuandako, honek ize-
nok erabiltzia litzake. Hori zeuon, ermuarron eskutan dago.

Eskerrik asko danoi

ERMUA-EITZAGA: LEKU-IZENAK LIBURUAREN AURKEZPENA

*Bilbon, egoitzan,
2002ko maiatzaren 24an*

Henrike Knörr

Euskaltzaindia sortu zen unetik beretik aurki ditzakegu Onomastika alorreko lanak gure erakundearen. Aski da, horretaz konturatzeko, orduko arautegiak irakurtzea, eta *Euskera* aldizkarian ageri diren gomendioak eta erabakiak ikustea. Zin-zinez esan daiteke pertsona- eta leku-izenei garrantzi handia ematen zitzaieela urte haietatik, euskara zaharraren bila ez ezik, euskara eraberritzeko ahaleginetan ere bai, dena esateko; askoren ustez, euskararen zoritxarreko gainbeheran galdu hitzak leku-izenetan aurki zitezkeen, eta berriro hitz bizien esparrura ekar. Desadan, bidenabar, ez deritzodala uste hari guztiz desagoki, arriskuak arrisku; jokabide hori, jakina denez, munduko hainbat hizkuntzatan gertatu da, eta hiztegia arrunt aberastu eta joritu.

Baina Onomastika batzordea ez da hain zaharra: 1984an sortu zen. Eta laster, 1986an, ekin genion *Onomasticon Vasconiae* bilduma honi. Bi motatako materialak nahi genituen argitaratu: bilketaren fruituak, alde batetik, eta ikerlanak, bestetik, nahiz bi motak maiz aski loturik etorri.

Hemen dugu azken emaitza, bada, Asranberri jaunaren liburu gotorra, Eta esan behar dut mamia bakarrik ez, titulua ere laketu zaidala: *Ermua-Eitzaga: leku-izenak, geure izanaren barrena*. Zeren liburuan ez dira soilik biltzen izenak, baita herri baten historiaren zati handi bat ere, beste anitzenan gisa, baina hemen, zalantzarik gabe, areago

Zer esanik ez, oraingo Ermuak zer ikusi gutxi du izenarekin, aspaldiz gero. Mundu guztiak dakienez, izan ere, *ermu*, *eremu*, besterik zen. Hona zer dioen Coromines maisuak *yermo* hitzaz (1): «Es corriente en el *Cid*, Berceo, *Apol.* [hots, *Libro de Apolonio*, 12. mendekoa], J. Ruiz la ac[epción] «desierto, deshabitado» (opuesto a *poblado*); la moderna de «inculto» (*montañas yermas*) está también en Berceo (*S. Mill[án]*, 54). La etimológica se mantenía to-

¹ *Diccionario crítico etimológico castellano e hispánico*. Madril, Gredos, 1991, s.u. *yermo*.

avía h[acia] 1460, cuando se escribió la *Cuarta Crón. Gral.*: «¿veis cuánto de la villa está yerma? ... Pues ahora que está aquí Castilla e León, e non es poblada Sevilla, ¿cómo, señor, dizes tú que te quieres ir para Castilla?» (*R[evista de] F[ilología] E[spañola] X*, 365). Nebr[ija]: «*iermo o desierto: desertum: ierma cosa, desertus.....*».

Beraz, gauzak biziki aldatu dira, baina hori ez da bakar-bakarrik gertatzen gure artean. Düsseldorf aipa genezake: hiri guztiz jendetsu hori ez da, ez, eremua, bigarren zatia *Dorf* bada ere, hots, «herrixka».

Niri gauza bakarra dagokit une honetan: Euskaltzaindiaren esker ona agertzea. Udalari, lehenik, eta ongi dakizu, Carlos Totorika alkate jauna, zein pozik gauden. Eskerrak orobat Bizkaiko Foru Aldundiari, eta hemen dago (nahiz eta ezingo duen hitz egin, eztarri minez) Gotzon Lobera jauna.

Bitartean, Euskaltzaindiak lanean jarraitzen du, gogo onez, eta ahal dela, lankidetzan. Oraintxe bertan izan dugu, esate baterako, bilera bat, Elhuyarrek bi kideekin, exonomastika mintzagai genuelarik. Beraz, guk ez dugu monopoliorik nahi, guk nahi dugu herriaren zerbitzutan jarraitu, jende guztiari entzun, Unibertsitate eta bestelako elkargoen ahotsa kontuan hartu, gure Onomastika zaharra eta ez hain zaharra bildu eta arakatu, eta izenen esparrua arautu. Hau bai, arautzea du Euskaltzaindiak zeregin berezia eta bere-berea.

ERMUA-EITZAGA: LEKU-IZENAK

Onomastican Vasconiae, 22

Bilbo, 2002-V-24

*Gotzon Lobera,
Bizkaiko Foru Aldundiko
Euskara Sustapenerako Zuzendaria*

Agur t'erdi:

Jaun-andreok, pozgarri dut oso gaur eta hemen Ermua eta Eitzagako toponimiari buruzko lan bikain hau aurkeztea.

Toponimian aritzen diren adituak beti erkatu nahi izan ditut meatzariekin, alegia, hizkuntza meatzariak ditugu, herri baten arimaren bankua aurkitu eta azaleratzen duten heinean.

Ziur naiz zuetarik bat baino gehiago bere buruari itaun bera egiten ari zaiola une honetan: zertarako balio du toponimiak? Ze alde dago auzo baten izenean letra bat aldatuagatik? Eta abar.

Bizkaiko Foru Aldundiak, Euskara Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia 1999. urtean sortu zuenetik hona, lehentasunen aurreneko tokietan izan du toponimiaren inguruko ataza, alde batetik, jakin dakielako iraganaren berri izateak dakarrela oraina eta etorkizuna finkatzea, eta, bestetik, azalera berriz ataratako izen horiek herri baten benetako nortasunari eusten diotelako.

Gaur egun, mundu guztia globalizazioaren eraginaren menpean dagoela, zertarako zaindu horiek guztiak? Euskadi herri txikia da, eta, txikia den neurrian, inork baino ahalegin handiagoa egin behar du, bere buruari eusteko, beste laster baten galduko delako. Eta guk, euskaldunok, eskubidea ez ezik, betebeharra ere badugu geure altxorra gizadi osoarentzat zaintzeko. Egunean-egunean galtzen dira hizkuntzak mundu zabalean zehar, egunean-egunean lurbira honetako herriek geroago eta ezberdintasun gutxiago dute elkarrengandik, eta hori, demokraziaren ikuspegitik, ez da hona, demokraziak, berez, aniztasuna dakarrelako, eta elkarrekin edo elkarren ondoan bizi izateak ez du zertan ekarri guztiok era berekoak izatea.

Horregatik guztiarengatik, Bizkaiko Foru Aldundiaren nahi eta asmoak argi eta garbi utzi nahi ditugu, ikuspegi honetatik, Euskal Herriaren kultur eta hizkuntz ondarea zaintzeko. Horregatik eskerrak eta zorionak eman nahi dizkiot, gure Foru Erakundearen izenean, Ermuko Udalari, bere historiaren gomuta berpiztu duen lan hau bultzatzeagatik. Eskerrak eta zorionak eman nahi dizkiot Euskal Birusa Euskara Elkarteari, argi ikusi duelako herriaren ezaupidea errazten duten tresnak sortu behar direla nahitaez. Eskerrak eta zorionak eman nahi dizkiot Fernando Aranberri Odriozolari, egin duen lan eskerga eta bikainarengatik. Eta, geroenean, eskerrak eta zorionak eman nahi dizkiot Euskaltzaindiari, bere Araudian eta Gernikako Autonomia Estatutuan ezarrita duen eginkizuna ederto betetzeagatik.

Lan hau beste askoren aurrendaria baino ez al da izango!

Eskerrik asko guztioi.